



OEEren 33.
Osasun
Biltzarra
**Botiketarik
haratago**
2024 urriak 25
Zornotza-Bizkaia



Abuztuaren 31n amaituko da epea Osasun Biltzarrean ahozko komunikazioak aurkezteko

Jakingo duzunez, urriaren 25ean Osasun Biltzarra egingo dugu Zornotzako (Bizkaia) Zelaieta Kultur Zentroan. Aurtengo gaia "Botiketarik haratago" izango da. Horren harira, dagoeneko irekita duzu ahozko komunikazioak (hobetsita) eta posterrak aurkezteko epea, abuztuaren 31ra arte.

Bitartean, biltzarra prestatzeko lantaldea osatzen ari gara jada. Gauzak horrela, antolaketa parte hartu nahi izatekotan ondoko helbide elektronikora mezua bidaltzea besterik ez duzu: oee@oeequnea.eus

[Behin-behineko egitaraua](#)

[Komunikazioetarako jarraibideak](#)



Osakidetza euskalduntzearen kontrako plataforma sortu dute osasun-arloko hainbat langilek

"Unidas por una exención lingüística real" izeneko plataformak joan den ostiralean, uztailaren 19an, egin zuen aurkezpen publikoa, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Bilboko egoitzaren aurrean elkarretaratzea eginez. Bere kideen esanetan, "profila eskatzeak esperientzia handiko profesionalak diskriminatzen ditu, eta horrek zerbitzuaren kalitateari eragiten dio". Osasun-arloko "400 langilek" osatzen omen dute plataforma; "gehienbat erizaintzako laguntzaileek, zeladoreek eta bestelako beharginek" eta "dagoeneko bi mila sinadura" batu dituzte.

OEEK [komunikazio bat](#) egin du non esaten duen osasun-zerbitzuak euskaraz eskaintzea oinarrizko eskubideak bermatzea besterik ez dela eta funtzionarioen arduetako bat dela herritarren beharrezanetara egokitzea. Horiez gain aipatu du EHU-UPVk akats historikoa konpondu behar duela, medikuntza eta erizaintzarako euskarazko plaza gehiago eskainita, Euskara Plana gauzatzeko Osasun Saileko eta Osakidetza kargu politikoak eta arduradunak elebidunak izatea ezinbestekoa dela, euskara ikasteko aukera gehiago eskaini behar direla eta doakoa izan behar dela eta euskaraz lan egitea posiblea izan behar dela, gaixoei benetako arreta elebiduna bermatu ahal izateko. Azken finean euskara bermatzea elkarbizitzaren eta hizkuntz askatasunaren sinonimoa da.

Euskara

- = Eskubideak bermatzea
- = Arreta hobea eskaintzea
- = Kalitate handiagoz jardutea
- = Doan ikasteko eskubidea orain
- = Legeak betetzea

Jateko ordua erakargarriagoa izan dadin



[Osakidetzan](#), disfagia duten pazienteentzako errezetekin liburu bat argitaratu dute Gorkizko Ospitalean. Betiko pureetatik haratago, pazienteak jateko orduan gozatzea eta plateretan aniztasuna izatea du helburu proiektuak. Ricardo Perez sukaldari ezagunaren laguntza izan dute.

[Albistea osorik](#)

Angel Bidaurrezaga: "Osasuntsu zegoen Begoñak zazpi medikamentu hartzen ditu orain"



Begoña andereak 74 urte ditu eta berriki alargun geratu da, Gabonetan. Hilabete bat pasatu ondoren, bere senarrari lagundu dion sendagileari eskerrak ematera joan da hurbil duen anbulatoriora. Doluminak emateaz gain, medikuak zelan dagoen galdetu dio eta Begoñak senarraren falta duela eta lo egitea kostatzen ari zaiola erantzun dio.

Begoñak ez du inoiz arazorik izan eta anbulatoriora senarrarekin joaten zenean odol presioa neurtzen zioten, arazo barik (125/85). Sendagileak, hala ere, kontrolatzeko analitika bat gomendatzen dio eta baita medikamentu bi ere, bata hobeto lo egiteko (lorazepam) eta bestea "animatzeko" (venlafaxina, antidepressibo bat). Handik sei hilabetera berriz ikusteko geratuko dira.

Angel Bidaurrezaga Vandierdonck Medikuntzan doktorea da, EHUko irakasle ohia eta OEEko kidea. [Albistea](#).



"Farmaberri" aldizkariaren zenbaki berria prest dago

[FEUSE](#)-Farmazialari Euskaldunen Elkarteak prest dauka euskaraz argitaratzen duen "Farmaberri" aldizkariaren zenbaki berria. Gauzak horrela, FEUSEk datorren urtean 30 urte beteko dituenek, urteurrena ospatzeko zer egitea gustatuko litzaiekeen galdetu diete irakurleei. Ondoko helbide elektronikora idatziz egongo da ideiak emateko aukera: feuseelkartea@gmail.com.

"Farmaberri" osorik ikusteko sakatu [hemen](#).

Sarean da Osagaiz aldizkariaren zenbaki berria

[Osagaiz](#) osasun-zientzien aldizkariaren zenbaki berria sarean dagoela jakinarazi nahi dizuegu. OEE-Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak eta UEU-Udako Euskal Unibertsitateak egindako argitalpenean, medikuntzari buruzko denetariko artikulak aurkituko dituzu, [hemen](#).